



HOBETU EGIN BEHAR DA



Save the Children

Eranskina
EUSKADI

Inor atzean uzten ez duen
hezkuntza-sistema baten alde

Nota metodológica

Autonomia-erkidego bakoitzaren eranskin monografikoak egiteko, Abay Analistas enpresaren laguntza izan dugu eta hainbat hurbilketa-metodologiaren arteko konbinazio baten alde egin da. Lehenik, **elkarriketa sakonak** egin dira hainbat pertsona aditurekin eta erkidego- eta probintzia-mailako guraso-elkarterekin. Printzipio bakoitzean aztertu beharreko alderdi nagusiak mugatzen lagundu dute.

Elkarrizketetan lortu den informazioa **estatistika-iturri eta bibliografia-iturri ofizialekin** (estatu-mailan zein erkidego-mailan), aztertu diren gaiei buruzko **ikerketa eta artikuluek** eta **bestelako informazioarekin**, batez ere, prentsa-artikuluekin.

Jarraian, **lortutako informazio guztia sistematizatu zen eta emaitzak balioztatu ziren**. Ondorioz, ekintza politikora gomendio sorta lortu da.

Foto portada:
Alba Lajarín

Gráficos:
Germán Gullón (VALBHY)

Arte y maquetación:
Óscar Naranjo Galván
Germán Gullón (VALBHY)

Septiembre 2016

Edita:
Save the Children España



Save the Children erakundeak, "Necesita mejorar. Por un sistema educativo que no deje a nadie atrás" (Hobetu egin behar da. Inor atzean uzten ez duen hezkuntza-sistema baten alde") izeneko txostenean, edozein hezkuntza-politika zuzendu beharko luketen bederatzi printzipio proposatzen ditu, berdintasunetik, eskola-porrota eta eskola garaia baino lehen uztea murrizteko. Eranskin honetan Euskadiko hezkuntza-sisteman printzipio horietako hiru nola ezartzen diren aztertzen da: **finantzazio osoa eta diru-laguntzak, hezkuntza 0-3 urte artean zabaltzea, batez ere haurtzaro ahulenetan, eta eskolen artean eskola-bereizketarik eza.**

AURKIBIDE

- 6** SARRERA
- 7** EUSKADIKO HEZKUNTZA-SISTEMA ZENBAKITAN
- 12** OSORIK FINANTZATUTAKO SISTEMA
ETA DIRU-LAGUNTZA ASKOREKIN
- 20** 0-3 URTE ARTEKO HEZKUNTZA ZABALTZEA,
BATEZ ERE HAURTZARO AHULENEN ARTEAN
- 31** ESKOLA-BEREIZKETARIK GABE,
EZ ESKOLEN ARTEAN
EZTA GELEN BARRUAN ERE

SARRERA

Asko eta konplexuak dira neska-mutil bat eskola-porrotaren arriskuan jartzen duten arrazoiak, baina nagusienak izaten jarraitzen dute dimentsio soziologikoek eta ekonomikoek eta bazterketakoek: ikasle pobreenek gainerako ikasleek baino hiru aldiz probabilitate gehiago dute atzeratuta geratzeko.

Save the Children erakundeak, "Necesita mejorar. Por un sistema educativo que no deje a nadie atrás" (Hobetu egin behar da. Inor atzean uzten ez duen hezkuntza-sistema baten alde) izeneko txostenean, bederatzi printzipio identifikatzen ditu,¹ eta sistema parekidea bat lortzeko bete beharko liratekeen maila desberdinetako ekintza politikoak gomendatzen ditu, jatorrizko desberdintasunek neska-mutilen emaitzan eraginik ez izateko.

Txostenaren eranskin honek Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasun-sistema aztertzen da eta zein puntutaraino betetzen diren hiru printzipio hauek:


- 1. Osorik finantzaturako sistema eta diru-laguntza askorekin**
- 2. 0-3 urte arteko hezkuntza zabaltzea, batez ere haurtzaro ahulenen artean**
- 3. Eskola-bereizketarik gabe eskolen artean**

¹ 9 printzipioak hauek dira: 1) Osorik finantzaturako sistema eta diru-laguntza askorekin; 2) Kalitatezko irakasleak eta nahikoak ingurune ahuletan lan egiteko; 3) 0-3 urte arteko hezkuntza zabaltzea, batez ere haurtzaro ahulenen artean; 4) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu ahal izatea probezia egoeran dauden haurrek; 5) Eskola-bereizketarik gabe, ez eskolen artean ezta gela barruan ere; 6) Taldetan eskola-estratifikaziorik edo balio desberdineko ibilbideak egin gabe; 7) Aniztasuna balio gisa aitortzea; 8) Derrigorrezko hzkuntzaren ondorengoa kalitatezko lanbide-heziketan; 9) Kalitatezko bigarren aukerak egotea itzuli nahi dutenentzat

EUSKADIKO HEZKUNTZA-SISTEMA ZENBAKITAN


- Euskadin, 2009az geroztik gutxituz joan da hezkuntzan egindako gastu publikoa, etxeetako irakaskuntza-gastua etengabe igoz joan den heinean:
 - 2007 eta 2012 artean, biztanle bakoitzeko inbertsio publikoa 888 euro jaitsi zen haur bakoitzeko.
 - Etxeetako gastua geroz eta handiagoa da eta % 38,79 hazi da 2009 eta 2013 artean.
- Estatuan baino murrizketa txikiagoa izan bada ere eta gainerako autonomia-erkidegoetan baino erritmo hobean errekuiperatzen ari bada ere, murrizketa horrek eragin handiago izan du, batez ere, egoera okerragoan dauden lineetan (diru-laguntzak % 61,41 murriztu dira 2009 eta 2013 artean eta konpentsazio-hezkuntza, berriz, % 74,41).
- Gainera, ikasleen kultura-jatorriaren arabera, tarte handia dago eskola-errendimenduan: bertakoek 1,2 aldiz batez besteko puntuazio altuagoa da atzeritik etorritakoekin alderatuta. Alde hori handiagoa da Euskadin, Espainiarekin edo Europar Batasunarekin alderatuz gero.
- Euskal ikasleen ia % 15k ez zuen amaitu DBH. Mutilen artean ematen da batez ere eskola-porrota.
- 2008az geroztik, eskola uzte goiztiarrak beheranzko joera etengabea erakusten du. 2010ean iritsi zen 2020rako helburura (% 13,1) eta estatuko ehuneko baxuena zuen 2015ean (% 9,7); hori bai, ehunekoak desberdinak dira neska eta mutilen artean (mutilen % 11,9k egin zuen porrot eta nesken % 8,5ek) eta errenta desberdineko neska-mutilen artean.
- Diru-sarreraren mailak eragin nabarmena du ikasleen eskola-errendimenduan. PISA emaitzetan 330 puntuko aldea dago errenta gutxiko neska-mutilen eta ekonomia-maila hobekoaren artean.

Goiztiarreko utzikeria ehunekoa eskolan eta esola porrota Euskadin




Estatuan, derrigorrezko hezkuntza ostekoa ikasi gabe hezkuntza-sistema uzten duten gazteen artean, diru-sarrera baxuko kintiletik datozenak % 28 izatetik (2008) % 36 izatera (2015) pasatu dira.


2012ko PISA proben batez besteko puntuazioa ikasleen jatorriaren arabera



Errenta gehiagoko pertzentilaren eta errenta txikiaren arteko puntuko desberdintasuna PISA txostenan handiagoa da Euskadin(330 puntuak). Espanian(289 puntuak) eta ELGAn batezbestekoa. (287 puntuak).



Errenta handieneko eta gutxieneko pertzentilen arteko PISA puntuazioaren arteko aldea Euskadin (330 puntu) Espainiakoa (289) eta ELGEren batez bestekoa (287) baino handiagoa da.



Euskadi ikasle bakoitzeko heziketan gehiago inbertitzen duen autonomia da, nahiz eta 2007tatik 2012 ra, 888 euro ikasle bakoitzeko ebaki zituen, eta inbertsioa ez da berreskuratu oraindik.


² Pertzentil neurria erabiltzen da, datuak txikienetik handienara ordenatu ostean, puntu jakin baten inguruan dauden guztiak bateratzeko. Horrela, 5. pertzentila diru-sarrera gutxi duen biztanleriaren % 5ean daudenei dagokie eta 95. pertzentila, ostera, % 90 eta % 95 aberatsenen artean dagoen biztanleriari dagokio.

OSORIK FINANTZATUTAKO SISTEMA ETA DIRU-LAGUNTZA ASKOREKIN

Ezin da iritsi hezkuntza-berdintasunera funts egokirik gabe eta dagozkion birbanaketa-mekanismoak gabe. Euskal sistema da autonomia-erkidego guztien artean hoberen hornituta dagoena, baina krisi-urte hauek erabilgarri dauden funts publikoak murriztu dituzte eta familiek diru gehiago inbertitu behar dute.


Grafiko honetan ikus daitezkeen moduan, alde handiz, Euskadik jarraitzen du hoberen hornitutako autonomia-erkidegoa izaten eta estatutako batez bestekoa baino zertxobait gutxiago murriztu da.

Ikasle bakoitzeko inbertsioa ez unibetsitateko irakaskuntzetako



Alabaina, jarraian ikusiko den moduan, familien gastua % 38,79 hazi da eta, ondorioz, aldatu egin da diru hori bideratu dezaketen eta bideratu ezin dezaketen arteko aldea.


Erkidegoko gastu publikoa eta familien gastua hezkuntzan. 2009-2013 bilakaera



Gastu publikoa % 8,99 jaitsi den bitartean, familia % 38,79 hazi da.

— Inbertsio publiko autonomikoa — Hezkuntzarako etxeko gastua
Iturria: erkidegoen gastu publikoarena HKKM; etxeetan hezkuntzan egiten den gasturako INE.


Familia bakoitzeko hezkuntzarako batezbestekoa gastua (euros)



Iturria: 2015ko familiako aurrekontuen inkesta. INE.

Bestalde, nabarmentzekoa da gehien murriztu diren partidak direla, gutxi asko, ahultasun-egoeran dauden neska-mutilek baliatu behar-ko lituzketenak. Hurrengo grafikoan eta taulan konpara ditzakegu nola murriztu diren gastuak. Unibertsitatekoa ez den hezkuntzaren barneko kontzeptuetan % 11,14 murriztu bazen ere 2009 eta 2013 artean (255 milioi baino zertxobait gutxiago, 2.292 milioi izatetik 2.036 milioi baino zertxobait gehiago izatera pasatu zen), zenbait kontzepturi gehiago eragin zitzaion: konpentsazio-hezkuntzarako 12 milioi baino zertxobait gutxiago bideratu ziren, hau da, ia % 30 murriztu zen. Bestalde, bereziki mingarria izan da diru-laguntzen murrizketa (% 61,41), 46 milioitik 17 milioira pasatu da denbora-tarte berean.

% de reducción del gasto de 2009 a 2013



Inbertsio publikoa (mila eurotan) hainbat gastu-partidetan

	2009	2013	Diferencia 2009-2013	Reducción 2009-2013
1. Gastu guztiak ez unibertsitateko irakaskuntzetako	2.292.230	2.036.766	-255.464	-11,14%
1.1. Eskolaz kanpoko jarduerak	10.906	2.791	-8.115	-74,41%
1.2. Osabidezko hezkuntza	16.602	11.747	-4.855	-29,24%
1.3. Ez unibertsitateko bekak.	46.375	17.894	-28.481	-61,41%
1.4. Bigarren Mailako hezkuntza eta lanbide heziketa.	951.338	880.392	-70.946	-7,46%
1.5. haur hezkuntza eta Lehen hezkuntza	1.467.850	1.395.682	-72.168	-4,92%

Iturria: Geuk egindakoa HKKMren datuekin

Eskolaz kanpoko jarduerak neska-mutilen garapenean duten garrantzia eta erosmen-ahalmen desberdineko familietan dauden desberdintasunak kontuan hartuta,³ egokia litzateke inbertsio publiko egokia egitea egoera okerragoan dauden neska-mutilen sarbide berdintasuna bermatzeko. Alabaina, grafiko berean ikus dezakegu % 74,41 murriztu direla eta, 2013an 2 miloi euro baino zertxobait gehiago bideratu zirela horretara.

DIRU-LAGUNTZEN EUSKAL SISTEMA

Arau bidez (hala estatu-mailan, nola erkidego-mailan) derrigorrezko eskola-aldia doan eta unibertsala izateko irizpideak xedatzen badira ere, oraindik badira zenbait kontzeptu (eskola-materiala, garraioa edo jangela, esaterako) gastu direna familientzat eta ikasleen sarbidea eta jarraipena baldintza dezakete, gai horietan eskumena duten administrazioek ekiten dieten moduaren arabera.

Zentzu horretan, diru-laguntzen sistema eratu zen doako hezkuntza horren falta "arintzeko" mekanismo gisa eta garrantzitsuak dira, besteak beste, eskola-materialenak eta testu-liburuenak, eskola-jangelenak eta garraioenak.

ESKOLA-MATERIALETARAKO ETA TESTU-LIBURUETARAKO SARBIDEA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostenean bildutako informazioak adierazten du 2014/15 ikasturtean 3 eta 19 urteren arteko ikasleen % 36k jaso zuen **eskola-materialaren** diru-laguntza eta 2 eta 16 urteren arteko ikasleen % 21,4k **jangelarena**. Ehuneko horiek oso antzekoak izan ziren 2012/2013 ikasturtean ere.⁴

3 Eskolaz kanpoko jardueretarako sarbidearen aldea 30 puntura irits daiteke.

4 http://www.consejoescolardeusadi.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=0052c480-cab8-4f30-83ab-03b32a1ead0a&groupId=17937

Probintzia bakoitzeko bekak daukaten ikasleen % bilakaera

	Eskolako materiala Bekak daukaten ikaskideak.		Jantokirako daukaten bekak ikaskideak	
	2012-13	2014-15	2012-13	2014-15
Araba	38%	38%	20%	20%
Bizkaia	38%	38%	24%	24%
Gipuzkoa	34%	34%	17%	18%
Euskadi	36,7%	36,0%	21%	21,40%

Iturria: Euskadiko Eskola Kontseilua

Ikastetxearen titulartasunagatiko bekadunen egunekoaren arabera, onuradunen ehunekoa handiagoa da titulartasun publikoko ikastetxeetan (5. taula). Izan ere, ikastetxe pribatuetaiko ikasle onuradunen egunekoak nabarmen baxuagoak dira ikastetxe publikoetan ikasten duten ikasleekin alderatuta.

Ikastetxearen titulartasunaren arabera eskola-materialaren eta jangelaren diru-laguntzen onuradun kopuruaren bilakaera. 2012/2013 eta 2014/2015 ikasturteak

	Eskola publikoa		Ikastetxe pribatuak		Desberdintasuna	
	2012-13	2014-15	2012-13	2014-15	2012-13	2014-15
% eskolako materiala Bekak daukaten ikaskideak.	44,0%	43,7%	30,2%	28,9%	13,8%	14,8%
% Jantokirako daukaten bekak ikaskideak.	30,2%	30,8%	13,1%	11,8%	1710,0%	19,0%

Iturria: Euskadiko Eskola Kontseilua

Gainera, testu-liburuei dagokionez, elkarriketatutako pertsonen adierazten dute bazela Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleentzako testu-liburuen programa solidario bat Euskadiko ikastetxe publikoetan.⁵ Bertan, Hezkuntza Sailak zenbateko bat finantzatzen zuen ikasle bakoitzeko eta familiek heziketa-zikloaren arabera zehaztutako banako ekarpena egiten zuten.⁶ Zentzu horretan, nabarmentzeko da Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako ikasleak (baita derrigorrezkoak ez diren heziketakoak ere) kanpo geratzen zirela programa horretatik. Era berean, egin-dako elkarriketetetan adierazi den moduan eta Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartearen (EHIGE)⁷ zenbait prentsa-oharretan eta prentsan⁸ berresten den moduan, Hezkuntza Sailak adierazi du pixkanaka programa amaitzeko asmoa duela, laguntza horiek ikasle bekadunek soilik izango dituzten beste sistema bat ezartzeko. Alabaina, 2015/2016 ikasturtean programa amaitzen joan zen, baina material digitalak lehenetsi ziren egiten ziren berrikuntzetan.⁹

ESKOLA-JANGELARAKO DIRU-LAGUNTZETARRAKO SARBIDEA

Bestalde, **jangelako laguntzei** dagokionez, elkarriketa egin zitzaizen pertsonen adierazi zuten laguntzak emateko aldia dela arazo nagusia, ordainketak otsailean egiten baitira, gutxi gorabehera. Hezkuntza Sailak ikastetxe bakoitzaren esku uzten du jangelako dirua aurrera dezaten eskatzea familiei edo ikastetxeak bere gain hartzea gastu hori. Egoera horren aurrean, adierazten dute badirela familiak seme-alabak jangelara eramaten ez dituztenak dirua aurreratu behar badute eta, nahiz eta kasu puntuala izan, garrantzitsua da jakitea Administrazioak haurra jangelako kuota aurreratzea behartzen ez zuen ikastetxe batera aldatzeko aholkatu ziola familiaren bati.

5 http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/ayuda_subvencion/programa_libros_texto/es_libros/programa_libros_texto.html

6 http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig2/es_otras_ex/adjuntos/programa_materiales_didacticos/resolucion_materiales_2016_2017_c.pdf

7 <http://www.bige.eus/wp-content/uploads/2009/01/PO-EHIGE-2015-6-24.pdf>

8 http://www.eldiario.es/norte/euskadi/Alarma-profesores-eliminacion-prestamo-solidario_0_396860818.html

9 http://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/programa_libros_texto/es_libros/adjuntos/EBAZPENES_es_2014-15.pdf

Gainera, jangela-laguntzei dagokionez, garrantzitsua da jakitea, Hezkuntza Sailak berak dioen moduan,¹⁰ balitekeela laguntza horiek jangelako gastu osoa ez estaltzea hitzartutako eskoletan eta eskola pribatuetan.

GARRAIO PUBLIKORAKO DIRU-LAGUNTZAK

Era berean, **eskola-garraioari**¹¹ dagokionez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2015eko abenduaren 23ko Ordenak eskola-garraioaren banakako esleipenak deitzen ditu lehen hezkuntzako bigarren zikloko, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleentzat 2015/16 ikasturterako.¹² Agindu horretan, beste irizpide batzuen artean, zehazten da, distantzia-baldintza bezala, ikastetxea ikasleen etxetik 2 kilometrora egon behar duela lehen hezkuntzako bigarren zikloko eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleen kasuan eta 4 kilometrora edo gehiagora derrigorrezko bigarren hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako ikasleen kasuan. Hezkuntza sailaren arabera, 2012/13 ikasturtean 2.187 laguntza eman ziren.¹³

BESTE BEKA BATZUK

Bestalde, derrigorrezko hezkuntzatik kanpo ere badira diru-laguntzak **batxilergoko eta lanbide-heziketako ikasleentzat**. Diru-laguntza horiei dagokionez, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak emandako informazioaren arabera laguntza horiek ikasleen % 29,0k eta % 16,9k jaso zuten, hurrenez hurren.¹⁴

¹⁰ Save the Children erakundearen arabera **55.816** haur euskaldun pobrezia-mailatik beherako diru-sarrerak dituzten etxeetan bizi dira. Neska-mutil horiek batez beste ko errentaren % 60 baino gutxiagoko errenta duten etxeetan bizi dira. Jangelako diru-laguntzen irismena, zenbaki absolutuetan, 92.000 onuradun prentsako informazioaren arabera: <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2015/11/05/sociedad/euskadi/el-presupuesto-vasco-de-destina-mas-de-80-millones-a-becas-educativas>. http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dib1/es_2032/adjuntos/becas_no_universitarias_2015_2016/FAQ_2015_2016_c.pdf

¹¹ <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2015/12/1505509a.pdf>

¹² <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2015/12/1505509a.pdf>

¹³ http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/es/contenidos/informacion/dij4/es_2100/asignaciones_individualizadas_c.html

¹⁴ Diru-laguntza horiek HKKM bidez kudeatzen dira. Estatuan, batez bestekoa % 28,2 eta % 26,8 artean mantentzen da, hurrenez hurren.

GOMENDIOAK

- Krisi aurreko biztanleko inbertsio-maila berreskuratzea.
- **Testu-liburuen eta material didaktikoaren mailegua orokortzea** funts publikoekin mantendutako ikastetxeetako ikasle guztietara, baita hitzartutako ikastetxeetan matrikulatutako ikasleetara, bigarren hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetakotara, batxilergokotara eta bigarren zikloko lanbide-heziketako ikasleetara ere.
- **Jangelako diru-laguntza** jasotzeko eskubidea duten seme-alabak dituzten **familiek kuota aurreratatu behar ez duela** bermatzea.
- Jangela **ez ordaintzeko salbuespena** gehitzea ahultasun bereziko taldeentzat.
- **Garraioko banako laguntzen eskaerak aurkezteko eta ebazteko epea** berrikustea, ikasturtea hasi baino lehen iritzi daitezten. Hezkuntza Sailaren web-orrian ikus daitekeen moduan,¹⁵ 2015/16 ikasturterako laguntzak deitu zituen Agindua 2015eko abendukoa da eta behin betiko ebazpena 2016ko ekainekoa.¹⁶
- Eskola-garraioari dagokionez, beharrezkoa litzateke **distantzia-irizpidea malgutzea, landa-eremuan bizi diren ikasleentzat, desplazamendu-denborak batez bestekoak baino luzeagoak izan baitaitezke**.
- Laguntza eskatzeko prozeduren diseinua erraztea, hezkuntza-maila baxuagoko familiak de facto baztertzen dituzten prozesu aspergarriak eta konplexuak saihestuz.
- Inbertsio publikoa areagotzea **haur guztiek kalitatezkoak, barneratzaileak eta anitzak diren aisialdi-jardueretarako sarbidea dutela bermatzeko** ikastetxean edo ikastetxetik kanpo, administrazioek zuzenean jarduera gehiago eskainiz Guraso elkarteek kudeatutakoen aurrean.

¹⁵ http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/es/contenidos/informacion/dij4/es_2100/j4_c.html

¹⁶ Diru-laguntzak ordaintzeko atzerapena 2015eko Arartekoaren txostenean ere bildu zen http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3896_3.pdf

0-3 URTE ARTEKO HEZKUNTZA ZABALTZEA, BATEZ ERE HAURTZARO AHULENEN ARTEAN

Haur-eskolako aldia garaia erabakigarria da haurren bizitzan. ELGE, UNICEF edo Europar Batzordea bezalako nazioarteko erakundeek haur-hezkuntzan parte-hartzea handitzearen eta heziketa-etapa horretako politika publikoak bultzatzearen garrantzia nabarmendu dute, hasierako desberdintasunak konpentsatzeko eta ikasleen hezkuntza-arrakasta hobetzen laguntzeko funtsezko estrategia gisa. Alabaina, koordainketa-sistemak eta konpentsazio-politiken faltak gutxitu egin dute gizarte-egoera ahuleko talde horien parte-hartzea eskolaratze-maila horretan eta geroz eta gastu publiko txikiagoa egiten da etapa horretan.

0-3 urte arteko 10 neska-mutiletatik 5 eskolaratu gabe daude eta, batez ere, egoera ahulenean dauden familiak izan ohi dira hezkuntza-etapa horretatik kanpo geratzen direnak. Ia 30 puntuko aldea dago lanean ari diren amen eskolaratutako seme-alaben eta lanik egiten ez duten amen seme-alaben ehunekoan.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuen arabera, gutxi gorabehera 30.373 haur daude matrikulatuta haur-hezkuntzako lehen zikloan Euskadin 2014/2015 ikasturtean; hau da, eskolaratze-tasaren % 51,3.¹⁷ Tasa hori estatukoa eta autonomia-erkidego gehienetakoa baino handiagoa bada ere, zera ikus dezakegu: lehenik, matrikuletan beheranzko joera dagoela eta, bigarrenik, kanpo geratzen direnak gehien behar dutenak direla.

¹⁷ Adin-tarte honetako batez besteko eskolaratze-tasa % 33,8 da Espainian.

PLAZA GUTXIAGO

Aurrez genioen moduan, azken bi ikasturteetan nabarmen gutxitu da (% 16) 0 eta 2 urte arteko lehen tartean matrikulatutakoen kopurua, batez ere, titulartasun publikoko ikastetxeetan (% 22 gutxiago, pribatuetan % 10 gutxitu den bitartean) eta, ondorioz, 0-2 urte arteko neska-mutilen eskolaratze-ratioa 3,4 puntu portzental jaitsi da.

0-3 urteko kopurua zentruaren titulartasunagatiko bilakaera

	Azken bi ikastaroko desberdintasuna				
	2012-13	2013-14	2014-15	n	%
Publikoa	6.954	6.051	5.400	-1554	-22%
Pribatua	6.501	6.141	5.864	-636	-10%
Guztia	13.455	12.192	11.265	-2190	-16%

Iturria: Euskadiko Eskola Kontseilua

Zentzu horretan, interesgarria da behatzea probintzien bilakaera desberdina. Txostenak adierazten duen moduan, matrikulazio-ehunekok handiagoak zeuden lurraldeetan jaitsi da gehien. Halere, 0-2 urte artean matrikulatutakoen ehunekoaren arteko jaitsieraren aldeak egonkor mantentzen dira titulartasun pribatuko ikastetxeetan (% 10 hiru probintzietan). Ikastetxe publikoetan izan dira aipatu aldeak: Araban % 17 jaitsi da, Bizkaian % 20 eta Gipuzkoan % 27.¹⁸ Eskolaratze-indizearen jaitsiera horrek islatzen du desberdintasun horiek; Bizkaian, 2,4 puntu portzental jaitsi da eta Gipuzkoan bi-koitza (4,8 puntu).

¹⁸ Lurraldeen arteko aldeei buruzko informazio gehiago lortu nahi izanez gero Eskola Kontseiluaren Txosteneko 15-20 orrialdeetan aurkitu duzue ("Hezkuntza Euskadin. 2013-2015 txostena")

Matrikulazioaren bilakaera eta 0-2 urteko tartearen eskolaratze-indizea, ikastetxearen titulartasunaren eta probintziaren arabera 2012/2013 ikasturtetik 2014/2015 ikasturtera

	2012-13			2012-13			2012-13			Azken bi ikastaroko desberdintasuna
	matri-kula	Jaiotzak	Hez-kunt-zako matri-kulazio	matri-kula	Jaiotzak	Hez-kunt-zako matri-kulazio	matri-kula	Jaiotzak	Hez-kunt-zako matri-kulazio	
Araba	2162	5624	38,4%	1994	5466	36,5%	1842	5284	34,9%	-3,5%
Bizkaia	6176	14582	35,1%	5654	16702	33,9%	5305	16225	32,7%	-2,4%
Gipuzkoa	5118	11663	43,9%	4544	11110	40,9%	4118	10528	39,1%	-4,8%
Euskadi	13455	34869	38,6%	12192	33278	36,6%	11265	32037	35,2%	-3,4%

Iturria: Euskadiko Eskola Kontseilua


Bestalde, aipatu behar da bi urtekoen mailan, adin txikikoak haur-eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan eskolaratu daitezkenean, eskolaratze-tasa % 93koa dela. Gainera, ikasturte horretan ez da ikusten azken urteetan 0-2 urte artean izandako jaitsiera gertatu denik eta ikastetxe publikoetako matrikulazioa ikastetxe pribatuetakoa baino 10 puntu portzental handiagoa da.

NOR GELDITZEN DA KANPOAN

Familia-aurrekontuen inkestako (2014) mikrodatuak ustiatuta lortutako datuen arabera,¹⁹ eskolaratutako adin txikikoen ehunekoa txikiagoa da gurasoek (eta batez ere amek) ikasketa arauturik ez dutenean edo lehen mailako ikasketak soilik dituztenean.

19 Xehetasun gehiago lortzeko, ikusi 1. eranskineko taulak

0-3 Matrikula amaren irakaskuntzako maila arabera



Gainera, aldea dago gurasoen nazionalitatea kontuan hartzen bada. Horrela, aita eta ama (batez ere aita) atzerrikoa duten neska-mutil gutxiago daude eskolaratuta.


% de niños/as escolarizados de de 0 a 3 según estudios de la madre



Iturria: geuk egina 2014ko Familien aurrekontu-inkesta oinarri hartuta. INE

Alabaina, lan-egoera da (batez ere amarena) alde handienak ikus daitezkeen aldagaia. Ia 30 puntuko aldea dago lanean ari diren amen eskolaratutako seme-alaben eta lanik egiten ez duten amen seme-alaben ehunekoan.

Haurren % eskolan amaren lanpostuaren arabera



Iturria: geuk egina 2014ko Familien aurrekontu-inkesta oinarri hartuta. INE

Informazio hori osatze aldera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak²⁰ Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeari enkargatuta, Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeen 2014ko inkestaren esparruan, 1.939 familiari egindako inkesta baten arabera, haurreskoletan eskolaratutakoen profila hau da:

- Neska-mutil (% 97,9), aita (% 89,1) eta ama (% 88,1) gehienak Euskadin jaio dira.
- Guraso gehienek derrigorrezko ikasketen ondorengoak dituzte (aiten % 87,4 eta amen % 96,2).
- Gurasoen gehiengoak ordaindutako lana dute (amen % 91k eta aiten % 95ek) eta, bien kasuan, gehienek lanpostu ertaina edo goi-mailakoa dute.

0-3 URTE ARTEKO HEZKUNTZAN PARTE HARTZE DESBERDINA IZATEAREN ATZEAN DAUDEN ARRAZOIAK:

1. Eskaintza publiko txikia, batez ere, hiri-eremuetan. Euskadin, 2013. urtearen amaieratik hona, Haurreskolak Partzuergoa da 0-2 urte arteko haur-eskola publikoak erkidego-mailan kudeatzen dituen erakunde publikoa (Hezkuntza Sailaren mende dagoen erakundea da eta Eusko Jaurlaritzaren eta udalen artean izenpetutako hitzarmenen bidez sortu zen). Irakaskuntza Sistema Ebaluatu

²⁰ http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=6bed18e9-99cc-4bc8-875d-7709b40f7239&groupId=635622

eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) haur-hezkuntzako lehen zikloari buruz ematen dituen datuak kontuan hartuta,²¹ plaza kopurua eskolaratutako haurrena baina altuagoa bada ere, zenbait prentsa-oharretan²² eta Euskadiko Eskola Kontseiluak 2013-2015 txostenean egiaztatzen da zenbait eremutan (batez ere hiru-eremuetan) matrikulazio-eskaera kopurua handiagoa dela eskainitako plazena baino.

2. Eskolaratzearen kostu handia. Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeetako plazen prezioa familia-errentaren tarteen eta haurra ikastetxean egoten den orduen arabera ezartzen da. 3. taulan ikus daitekeen moduan, prezioek (baita errenta baxueneko tartekoek ere) sistematik kanpo utziko lituzkete, edo gutxienez, asko zailduko lukete baliabide ekonomiko gutxi dituzten etxeetako adin txikikoen eskolaratzea. Gainera, tarifa horiek ez dute ez-ordaintzeko salbuespenik inongo errenta-mailatan.

Kuota Maila	Errenta normalizatua	8 ordutatik	5 ordutatik	Egokitzeko hilabete kuota
1	<10.000€	118 €	91 €	91 €
2	>10.000€ y <15.000€	180 €	140 €	140 €
3	>15.000€	208 €	160 €	160 €
Precuota	91 €			

Iturria: Eusko Jaurlaritzak banatutako familientzako informazioa (2016/2017 ikasturtea)^{23 24}

21 http://www.zuzendari.net/Argitalpenak/docs/310_evaluacion/3102014004c_Pub_EJ_haurreskolak_c.pdf. 2014ko ikerketa horretan eskainitako datuen arabera, Haurreskolak Partzuergoak 228 haur-eskola zituen 176 udalerritan eta 8.111 plaza zituen zero eta bi urte artean, guztira 5.500 haurrekin.

22 <http://www.diariovasco.com/v/20120105/al-dia-sociedad/euskadi-plazas-guarderia-para-20120105.html>
<http://www.noticiasdealava.com/2015/08/01/sociedad/los-primeros-en-pisar-la-guarderia>

23 http://www.haurreskolak.eus/adj_documentos_informacion/515.pdf

24 Haurreskolak Partzuergoaren zuzendaritza-batzordearen 2015eko martxoaren 18ko 02/03-2015 Akordioa, Haurreskola Partzuergoak eskaintzen dituen zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituenak. Akordio honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren hiru urtez azpiko laguntza- eta hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dira, nahiz eta arautuak izan daitezkeen.

Gizarte-tarifa mugatua izateaz gainera, garrantzitsua da aipatzea zenbait eskola publikotan (haien Zuzendaritzek hain zuzen ere, eta zenbait guraso-elkartek salatzen dutenez) 2 urteko haurrak zaintzeko Sailak eskaintzen dituen baliabideak ez direla nahikoa diote eta, beraz, kuota osagarria ordaindu behar dela haurrak zaintzeko laguntzaileak kontratatzeko. Zehazki adierazten da Bizkaian oso praktika hedatua dela eta guraso-elkarrekin laguntzaileak kontratatzen dituztela. Familiei kuota bat jarrita finantzatzen dituztela kontratatutako laguntzaile horiek eta 60-70 eurokoak izan ohi dira hilean.²⁵ Horrek, familiek ordaindu beharreko kostua handitzen dute eta berdintasuna eragiten dute.

Gainera, garrantzitsua da nabarmentzea prezio horietan ez dela sartzen eskolako jangela. Janaria etxetik eman daiteke Haurreskolak Partzuergoak ezarritako argibideei jarraiki edo catering-zerbitzua erabil daiteke (baldin eta bideragarria bada erabiltzaile- eta instalazio-kopuruen aldetik). Catering-zerbitzua erabiliz gero, familiek kudeatzen dituzte.

3. Errentaren mugaren arabera diru-laguntzak eskatzeko baldintzen zorrotzasunak familia ugari utziko lituzke ekonomia-egoera ez oso mesedegarrietan.²⁶ Laguntzak pobrezia arineko familietara mugatuta geratzen dira, pobretutako beste hainbaten beharrak kontuan izan gabe.

4. Bestalde, haur-hezkuntzako lehen ziklora berdintasunean sartzeko interes berezia duen beste alderdi bat da ikastetxe publikoetan onartzeko irizpideak ezartzea. Horrek ez baitizkie aukera berak ematen errenta baxuagoko neska-mutilei.

Zentzu horretan, haur-hezkuntzako lehen zikloan onartzeko baremoa martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuan jasotzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur-hezkuntzako, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Maila Ertaineko eta Goi-mailako Lanbide-heziketako ikastetxe publikoetan eta pribatu Hitzartuetan ikasleak onartzea arautzen duenean.²⁷ Aipatu dekretuaren 21. artikuluan zehazten da ikastetxeak izan dituen eskaera guztiak hartzeko nahikoa plaza ez balu, irizpide hauen arabera onartuko dituela, pilotzeko aukerarekin:

25 Egoera hori bi urteko haurren eskolaratze goiztiarreko gelak dituzten eskola publikoetan gertatzen da.

26 Hezkuntza, Hizkuntza-politika eta Kulturarako sailburuaren 2015eko irailaren 2ko Agindua, 2015-2016 ikasturterako ikasketa ez unibertsitarioetako ikasleak eskolaratzeko ikasketa-bekak eta diru-laguntzak deitzen dituenak, haur-hezkuntzako lehen ziklorako gehieneko mugak ezartzen ditu (8. eta 9. orrialdeak).
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dib1/es_2032/adjuntos/becas_no_universitarias_2015_2016/FAQ_2015_2016_c.pdf

27 <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/03/0801394a.pdf>

- Familia-unitatearen urteko errenta (etxean diren adin txiki-koen kopurua ere aintzat hartzen da diru-sarrerak ponderatzeko).
- Ikaslearen etxea edo aitaren, amaren, tutorearen edo legezko tutorearen lantokia etxetik gertu izatea.
- Anaia-arrebak matrikulatuta izatea ikastetxean edo aita, ama, tutoreak edo legezko tutoreak bertan lan egitea.
- Familia ugaria izatea.
- Ikasleak, aita, ama, tutoreak, legezko tutoreak edo anaia-arrebaren batek desgaitasun bat izatea.
- Ikastetxeko kooperatiba-bazkide izatea.
- Ikastetxeko eskumena duen organoak garrantzitsu irizten dion beste edozein zirkunstantzia. Eta irizpideak objektibo izan daitezen, zirkunstantzia horiek publiko egin beharko ditu ikastetxeak eskaerak entregatzeko epea hasi baino lehen.

Berdinketarik balego, Dekretuak zehazten du aurreko irizpideetan puntu gehien lortu dituenaren alde ebatziko dela, banan-banan konparatuz eta jarraian adierazten den ordenan:

- a. Puntu gehien lortzen duenak anaia-arrebak matrikulatuta izatea ikastetxean edo aita, ama, tutoreak edo legezko tutoreak bertan lan egitea atalean.
- b. Puntu gehien lortzen duena hurbiltasunari dagokion atalean.
- c. Puntu gehien lortzen duena desgaitasun baten konkurrentziari dagokion azpiatalean.
- d. Puntu gehien lortzen duena familia ugariari dagokion azpiatalean.
- e. Puntu gehien lortzen duena familia-unitatearen urteko errentari dagokion atalean.
- f. Puntu gehien lortzen duena ikastetxearen kooperatiba-bazkideari dagokion azpiatalean.

Aipagarria da ez zaiela inolako erreferentziarik egiten guraso bakarreko familiei, nahiz eta egoera ahulagoan aurkitzen diren eta, berdinketarik balego, ez litzateke gailenduko familia-unitatearen urteko errentari dagokion atalean lortutako puntuetan.

Haur-eskolen 2016/2017 ikasturterako baremoen irizpideen kasuan, 2016ko martxoaren 15eko Haurreskolen Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordeak 04/03-2016 Akordioan xedatzen denaren arabera, 2016ko irailetik aurrera Haurreskolen Partzuergoan neska-mutilak onartzeko araudia eta irizpideak onartzen dituenaren arabera,²⁸ hauek dira:

1. Familia-unitatearen urteko errenta (tarteka). Atal honetan gehienez lor daitezkeen puntuak: 3 puntu.
2. Etxetik gertu. Atal honetan gehienez lor daitezkeen puntuak: 5 puntu.
3. Anaia-arrebak haurreskolan matrikulatuta izatea edo aita, ama, tutoreak edo legezko tutoreak haurreskolan lan egitea. Atal honetan gehienez lor daitezkeen puntuak: 9 puntu.
4. Familia ugaria izatea (kategoria orokorra: 1 puntu; kategoria berezia: 1,5 puntu).
5. Haurrak, aita, ama, tutoreak, legezko tutoreak edo anaia-arrebaren batek desgaitasun bat izatea (kontzeptu horrengatik gehienez lor daitezkeen puntuak: 2 puntu).
6. Beste zirkunstantzia garrantzitsu batzuk.
 - a. Aitaren, amaren, tutorearen edo legezko tutorearen lan-egoera: gehienez 2 puntu. Aita, ama, tutorea edo legezko tutorea biak lanean aritzea, edo guraso bakarreko familiaren kasuan, guraso bakar hori lanean aritzea: 2 puntu.
 - b. Gurasoetako bat lanean eta bestea langabezian egotea edo bi gurasoak langabezian egotea, edo guraso bakarreko familien kasuan, guraso bakarra langabezian egotea: 1 puntu.

Puntu kopuru bera lortuko balitz, aurreko irizpideetan puntu gehien lortzen dituenaren alde hautsiko da berdinketa, banan-banan alderatuta eta martxoaren 4ko 35/2008 Dekretua xedatzen den ordena berean, "e" puntuaren salbuespenarekin.

Ikus daitezkeen moduan, lanean ari diren gurasoek puntu gehiago dituzten langabezian dauden biek baino eta, beraz, zigortu egiten dira lanik ez duten eta, ondorioz, errenta baxuagoak dituzten familiak. Gainera, aipatzeko da anaia-arreba ikastetxean izateak edo aita edo ama ikastetxean lan egiteagatik 9 puntu lor litezkeela eta familia-errentagatik, berriz, gehienez hiru. Ez da punturik ematen guraso bakarreko familia izateagatik, bai ordea familia ugaria izateagatik, nahiz eta biak egon ahultasun egoera berean.

²⁸ http://www.haurreskolak.eus/adj_documentos_informacion/490.pdf

GOMENDIOAK

1. Plaza publikoen eta eskuragarrien eskaintza handitu behar da, 3 urte arteko neska-mutil guztiak haur-hezkuntzako lehen zikloan eskolaratu daitezen, batez ere, **hiri-eremuetan**.
2. **Kuotak murrizteko** urrats gehiago eman behar dira, gizarte-tarifen eta ordainketa-salbuespenen erabilera sortuz.
3. Hezkuntza-ziklo honetan diru-laguntzak emateko ezarritako muga berrikusi behar da, baita haurreskoletan²⁹ eskolaratu gabeko ikasleentzako zenbatekoak ere.
4. Desberdinak saihesteko, **funts publikoekin babestutako ikastetxeetako plazak eskuratzeko puntuazio-irizpidea** aldatzea:
 - i. 2016/2017 ikasturterako haurreskoletan **bi gurasoak lanean ari direnean ematen zaien gehieneko puntuazioa** bi puntu da; langabezian daudenek, aldiz, puntu bakarra jasotzen dute. Gainera, inaktibo daude edo era irregularrean lan egiten duten gurasoek ez dute punturik jasotzen. Ondorioz, hasiera batean, egoera ahulagoan dauden etxeetatik datozen adin txikikoak zigortzen dira.
 - ii. Haurreskolen kasuan **guraso bakarra izatea** irizpide puntuagarria da baina ez martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuaren kasuan. Familia mota horien berezitasunak ere kontuan hartu beharko lirateke.
5. Ahultasun edo bazterketa arriskuan dauden familien artean **informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak** egin behar dira eskolaratze goiztiarrak duen garrantzia ezagutarazteko.

²⁹ http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dib1/es_2032/adjuntos/becas_no_universitarias_2015_2016/FAQ_2015_2016_c.pdf

ESKOLA-BEREIZKETARIK GABE, EZ ESKOLEN ARTEAN EZTA GELEN BARRUAN ERE

Eskolen osaera orekatua hezkuntzaren funtsezko printzipio politikoa da berdintasunaren ikuspuntutik. Ikastetxeetako gizarte-heterogeneotasunak "pare-efektua" maximizatzen uzten du, hau da, errendimendua hobetzen du ikasteko zailtasun handiagoak dituzten ikasleak errendimendu akademiko hobea dutenekin nahastuta eta desio den gizarte-elkarbizitzako ereduaren eskola-eredu adierazle bat eraikitzen da, non gizarte-ingurune eta kultura-jatorri desberdineko ikasleak ohikoak diren eskolaratze-prozesuan eta ez salbuespen.

Alabaina, Euskadin ikasleak egoera sozioekonomikoaren eta familiaren jatorriaren arabera pilatuta daude zenbait ikastetxetan.

2010/2011 ikasturtean atzerriko ikasleen % 20ko baino gehiagoko ehunekoak zituzten 54 ikastetxe detektatu ziren eta 2015/16 ikasturtean, berriz, 62 ikastetxe zeuden.

Euskadiko zenbait ikastetxek baliabide gutxiagoko familietatik datozen, atzerritik etorritako edo ijito-etniako ikasleen ehuneko handia pilatzen dute. Prentsako albisteek, EHIGEn txostenak eta egin diren elkarriketen berresten dute badirela % 80ra iristen diren edo ehuneko hori gainditzen duten ikastetxe publikoak eta, bestalde, badirela ikasle atzerritarrik ez dagoen ikastetxeak ere.³⁰ Datu horiek berresten ditu 2012-2015eko eskola barneratzailearen eta kultura artekoaren markoan ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako planean bildutako informazioak ere, lurral-

³⁰ <http://www.deia.com/2016/02/16/sociedad/euskadi/la-publica-declara-la-guerra-a-la-segregacion-escolar-en-gasteiz>

deen, etapen, sareen eta hizkuntza-ereduen arabera ikasle etorkinen banaketa desberdina dela baieztatuz.³¹

Txosten horretan aipatzen denez, 2010ean Euskadiko ikasle etorkinen % 25 eskolaratzen zuen Lehen hezkuntzako 25 ikastetxe zauden eta 85 ikastetxetan biltzen zen etapa horretako etorkinen % 55 eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren kasuan ere egoera oso antzekoa zen. Era berean, aurrez azaldu den eta prentsan eta EHIGEk bildutako egoera berresten du txostenak: 2010ean, Lehen Hezkuntzak 12 ikastetxek eta DBHko 8k ikasle etorkinen % 50 eta % 70 artean zuten eta % 70 gainditzen ziren ikastetxeak ere detektatu ziren.

Gainera, aipatzekoa da EHIGEn datuen arabera, ikastetxe publikoetan egoerak okerra egin duela azken urteetan. 2010/2011 ikasturtean atzerriko ikasleen % 20ko baino gehiagoko ehunekoak zituzten 54 ikastetxe detektatu ziren eta 2015/16 ikasturtean, berriz, 62 ikastetxe zeuden (8. taula).

Sare publikoan ikasleen % 20 baino gehiago atzerriko den ikastetxeak. 2010/2011 eta 2015/2016 ikasturteak

	2010-2011	2015-2016	62 ikastetxeen banaketa ikastetxe motaren arabera
GUZTIRA	54 ikastetxe	62 ikastetxe	47 (2-12 urte)/ 3 (2-16 urte)/ 12 (12-16 urte)

Iturria: EHIGE

Azkenik, egindako elkarrizketetan bildutako informazioaren arabera heziketa-arretarako planean bildutako datuek berresten dutenaren arabera, hizkuntza-ereduaren arabera ere ikusten da atzerriko ikasleen pilaketa. Profil horretako ikasleen presentzia nabarmena da ikastetxe publikoetako A ereduaren. Ehunekoak txikiagoak dira D ereduaren³² (ikastetxe publikoetan baina, batez ere, pribatueta). Zentzu horretan, garrantzitsua da nabarmentzea, egindako elkarrizketetan bildutako informazioaren arabera, eskola publikoetako A ereduaren daudelako errendimendu baxuko ikasleen ehuneko altuenak.

31 http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig1/es_2084/adjuntos/120009c_Pub_EJ_etorkin_plana_c.pdf

32 Euskadiko hezkuntza-sisteman, A ereduaren da komunikazio-hizkuntza gaztelaniaren ereduaren; B ereduaren eredu mistoa da eta irakasgaiak euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira eta D ereduaren, azkenik, komunikazio-hizkuntza euskara da.

Bertako biztanleen eta biztanle etorkinen ehunekoa lehen hezkuntzako 4. mailan, ereduaren eta ikastetxearen titulartasunaren arabera. 2010. urtea

	Hemengo biztanleria		Atzerriko biztanleria	
	N	%	N	%
A publikoa	356	62,2	216	37,8
B publikoa	1163	82,0	255	18,0
D publikoa	7164	94,2	438	5,8
A concertado	945	93,7	64	6,3
B concertado	4170	95,0	220	5,0
C concertado	3926	97,1	119	2,9
GUZTIAK	17724	93,1	1312	6,9

Ikasle etorkinen hezkuntza-arretarako plana eskola barneratzailearen eta kultura artekoaren markoan. 2012-2015

Bertako biztanleen eta biztanle etorkinen ehunekoa DBHko 2. mailan, ereduaren eta ikastetxearen titulartasunaren arabera. 2010. urtea 0

	Hemengo biztanleria		Atzerriko biztanleria	
	N	%	N	%
A publikoa	538	53,6	466	46,4
B publikoa	916	86,7	140	13,3
D publikoa	6064	96,7	209	3,3
A concertado	1602	84,3	298	15,7
B concertado	3937	94,8	217	5,2
C concertado	3548	97,6	86	2,4
GUZTIAK	16605	92,1	1416	7,9

Ikasle etorkinen hezkuntza-arretarako plana eskola barneratzailearen eta kultura artekoaren markoan. 2012-2015

Era berean, ijito etniako ikasleei arreta jarrita, datu ofizialek berresten dute elkarrizketetan lortutako informazioa. Horrela, 2012-2015ko ikasle ijitoen eskolaratzea hobetzeko planean³³ bildutako datuen arabera, profil horretako ikasleak ikastetxe jakin batzuetan pilatzen direla behatzen da, batez ere sare publikoan, eta atzerriko jatorria duten biztanleekin gertatzen den moduan, A eremuan pilatzen dira batez ere. Araban eta Bizkaian berresten da badirela ijito-etniako ikasleen ehunekoa % 25 baino gehiago duten ikastetxeak, ia guztiak titulartasun publikoan.

Número de centros con alumnado gitano (año 2011).

	Zentru publikoak		Concertados	
	Haurren hezkuntza / lehen hezkuntza	ESO	Haurren hezkuntza / lehen hezkuntza	GUZTIAK
Araba	22	9	8	39
Bizkaia	78	24	8	110
Gipuzkoa	22	10	8	40
Total centros				189

Iturria: 2012-2015 ikasle ijitoen eskolaratzea hobetzeko plana.

Zentro kopurua ikasle ijitoko % arabera

	Ikasle ijitoak 25% baino gehiago dagoen eskolak				ikasle ijitoak 15%-25% tartean dagoen eskolak				ikasle ijitoak 15% baino gutxiago dagoen eskolak			
	Publikoak		Conc.	Guztia	Publikoak		Conc.	Guztia	Publikoak		Conc.	Guztia
	lehen hezkuntza	bigarren hezkuntza			lehen hezkuntza	bigarren hezkuntza			lehen hezkuntza	bigarren hezkuntza		
Araba	4	1	0	5	7	1	1	9	10	8	7	25
Bizkaia	8	4	1	13	13	6	1	20	57	14	6	77
Gipuzkoa	0	0	0	0	3	0	1	4	19	10	7	36
Guztia	12	5	1	18	23	7	3	33	86	32	20	138
Guztia												189

Iturria: 2012-2015 ikasle ijitoen eskolaratzea hobetzeko plana

33 http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/es/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_diversid/adjuntos/17_aniztasuna_120/120010c_Pub_EJ_Plan_mejora_escolarizacion_gitano_c.pdf

Laburbilduz, ondoriozta dezakegu badaudela **ingurune ez hain mesedegarrietatik datozen** edo profil soziologiko eta demografiko jakin batzuetakoak diren (ijito-etniako ikasleak edo etorkinak) ikasleen pilaketa handia dagoela ikastetxe batzuetan; batez ere sare publikoan eta A hizkuntza-eremuan. Hau da, esan daiteke profil horretako ikasleak nolabait baztertzen ari direla, ikastetxearen titular-tasunaren edo lurraldearen arabera ez ezik, baita sare bereko ikastetxeen eta lurralde-eremu berekoen artean ere. Gainera, horrelako ikasleak eredu jakin batean ari dira pilatzen, gaztelania komunikazio-hizkuntza duen eremuan hain zuzen ere.

Aurreko puntuarekin lotuta, adierazi behar da **Hezkuntza-sailak aitortu duela pilaketa handi hori**³⁴ eta konpromisoa hartu du egoera hori konpontzen ahalegintzeko neurriak hartzeko. Oraingoz ordea, egin diren elkarrizketetan esan da ez dela aldaketarik ikusi aurrez azaldutako egoeran.

Amaitzeko, **behar bereziak dituzten ikasleen** kasuan, nabarmendu behar da gehienak ohiko ikastetxeetan eskolaratuta daudela eta gela egonkorrak eta zereginak egiten ikasteko gelak daudela behar berezienak dituzten ikasleentzat. Eskola-kontseiluaren arabera, 2014/2015 ikasturtean, 1.212 ikasle joan ziren ikasgela horietara (474 Haur- eta Lehen Hezkuntzako ikasgela egonkorretara eta 263 DBHn eta DBHOn eta 475 Zereginak ikasteko geletara). Ikasleen profil horrekin lotuta, eta egindako elkarrizketetan emandako informazioaren arabera, ez dirudi kontzentrazio handirik dagoenik ikastetxe jakin batzuetan, nahiz eta balitekeen ikastetxe publikoetan pribatuetan baino ikasle gehixeago egotea.

Azkenik, nahiz eta ikasle ijitoen eta ikasle etorkinen kasuan gertatzen den bezala ez dagoen bereizketarik, elkarrizketa egindako pertsonak arduratuta agertu dira **profil horretako ikasleei bideratutako baliabideetan izandako murrizketengatik**, batez ere aniztasun funtzionalak dituzten edo laguntzak behar dituzten hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei zuzendutakoetan. Era berean, arduratuta agertuko dira baliabide horiek emateko irizpideetan izan den gogortasunarekin ere.

34 http://www.eldiario.es/norte/euskadi/Educacion-reconoce-segregacion-colegios-negaba_0_486101687.html
<http://www.diariovasco.com/sociedad/201602/19/uriarte-reconoce-segregacion-escolar-20160219115154.html>

BEREIZKETA BAITA ESKOLA PUBLIKOAREN ETA HITZARTUTAKOAREN ARTEAN ERE

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak emandako datuen arabera,³⁵ Euskadin, 368.619 haur zeuden matrikulatuta 2014/2015 ikasurteko Hezkuntza Erregimen Orokorrean eta horietatik % 51,1ek titulartasun publikoko ikastetxeetan ikasi zuten, % 48,1ek ikastetxe hitzartuetan eta gainerako % 0,8k ikastetxe pribatuetan. Hau da, ia euskal ikasle guztiek funts publikoetan eutsitako ikastetxeetan ikasi zuten (% 99,2). Titulartasunaren arabera ikastetxeetako ikasleen banaketa probintziak, Araban dago ikasleen ehuneko handiena ikastetxe publikoetan (% 57,2) eta Bizkaian gutxiena (% 48,8).

Funts publikoekin eutsitako edozein eskolara sartzeko unean berdintasuna bermatzeko unean kontuan izan beharreko funtsezko ikuspegietako bat da ikasleen profil jakin bat hautatzen, zuzenean edo zeharka, ari ote diren mekanismorik ba ote den detektatzea.

Mekanismo horien artean, eta baliteke detektatzen errazagoa izan daitekeena eta, beraz, zuzen daitekeena da **kuotak ezartzea** ikastetxe hitzartu batzuk, nahiz eta lege-xedapenaren arabera doakoak izan behar duten funts publikoek mantentzen dituztelako, uniformea, eskolaz kanpoko jardueren eta antzeko kontzeptuengatik ezkutuko kobrantzak egiten dituzte. Praktikan, egoera horrek ezinezko egiten dute ikastetxe horietan baliabide ekonomiko txikiagoak dituzten adin txikikoak matrikulatzea. Egindako elkarrizketetan bildutako informazioaren arabera, Euskadiko batez bestekoa 2.000/3.000 euro ingurukoa izan daiteke urteko.

Bigarrenik, irizpide ekonomikoez gain, zenbait ikastetxe hitzartuk ikasle-profil batzuen sarbidea zailtzen dute eta, beraz, **ikasle-talde jakin batzuen banaketa ez orekatua** gertatzen da, batez ere bi talde jakinetan: **atzerrikik datozen ikasleak eta behar bereziak dituzten ikasleak**.

Bestalde, baliteke **beste oztopo mota batzuk ere izatea, adibidez, ikastetxe hitzartu batzuetako erlijioa**. Horren harira, zentzu horretan gertatutako egoera puntual baten berri ematen du prentsak.³⁶

³⁵ <http://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas.html>

³⁶ <http://www.diariovasco.com/sociedad/201602/19/uriarte-reconoce-segregacion-escolar-20160219115154.html>

ESKOLARATZE ALDEAK PUBLIKOEN ETA HITZARTUEN ARTEAN ETA IKASLE-TALDEEN ARABERA

• Atzerriko ikasleak

Lehenengoei dagokienez, HKKMren datuen arabera, 2014/2015 ikasurtean, Euskadin erregimen orokorrean ikasi zuten 27.101 adin txiki-ko atzerritarrak ziren, hau da, guztizkoaren % 7,4.

Alabaina, zentroaren titulartasuna kontuan hartzen bada, eta jatorrizko eta bertako ikasleen ehunekoak aztertzen badira, ikastetxe publikoetan lehenengo gehiago daudela ikus daiteke. Horrela, ikasle atzerritarren % 70,3k eskola publikoetan ikasten zuen, ikastetxe publikoetako guztizko ikasleen ia 20 puntu portzentual gehiago.

Número de centros con alumnado gitano (año 2011).

	Ikasle Guztiak			Atzerriko ikasleak		
	Eskola publikoa	ikastetxe pribatuak . Concertados	Ikastetxe pribatuak kontzerturik gabe	Eskola publikoa	ikastetxe pribatuak . Concertados	Ikastetxe pribatuak kontzerturik gabe
Araba	57,2	42,8	0,0	79,9	20,0	0,0
Bizkaia	51,7	48,2	0,1	69,8	29,5	0,7
Gipuzkoa	48,8	49,7	1,5	65,6	33,2	1,2
Euskadi Guztia	51,1	48,1	0,8	70,3	28,9	0,8

Iturria: HKKMren estatistikak

Euskadiko Eskola Kontseiluaren 2013-2015 txostenak eskaintzen dituen datuetan berresten da titulartasun publikoan atzerriko ikasle gehiago dagoela.³⁷ Bertan, adierazten denez, 2014-15 ikasturtean, oinarritzko hezkuntzan, ikasle atzerritarrek ikasleekin % 6,6 adierazi zuten, eta horien proportzioa ikastetxe publikoetan (% 9,1) titulartasun pribatukoaren (% 4,2) bikoitza izan zen.

Txosten honen arabera, eskolaratze-eremuka, desberdintasun handiak daude, % 14 gainditzen dute, esaterako, Rekalde (% 18,3), Arabar Errioxan (% 15,5) edo Gasteiz Iparraldean (% 14,6). Bestalde, ba-

³⁷ http://www.consejoescolardeeuskadi.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=0052c480-cab8-4f30-83ab-03b32a1ead0a&groupId=17937

dira % 3 gainditzan ez diren eremuak ere: Txorierri, Trapaga, Abanto edo Uribe-Kosta.

Gainera, EHIGEk bere webgunean eskainitako datuen arabera, aldeak handitu egin dira azken ikasturteetan. Jarraian ikus daitezkeen moduan, sare publikoan dauden atzerriko ikasleen ehunekoa % 69,8 izatetik (2010/2011 ikasturtea) % 74,2 izatera pasatu zen (2015/2016 ikasturtea).

Ikasle atzerriarren ehunekoa ikastetxearen titulartasunaren arabera. 2010/2011 - 2015/2016 ikasturteak.

Ikastaroa	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016
Sare publikoa	69,79%	69,94%	70,66%	70,24%	72,25%	74,16%
Sare pribatua	30,21%	30,06%	29,34%	29,76%	27,75%	25,84%

Iturria: EHIGE³⁸

Aipagarria da egoera askotan ikasle atzerriarrak **aparteko epean** matrikulatzen direla ikastetxe kontzertatuetan, Matrikulazio-batzordeak hala iradokita, baina hurrengo ikasturtean ikastetxe publikoetara pasatzen direla.

Gainera, zenbait ikastetxe hitzartuk ez dute onartzen aparteko epean matrikulatzen diren ikaslerik (gehienetan atzeritik datozen neska-mutilak), zehaztutako ikasleen gehieneko ehuneko ratioa (% 10) gainditzan dutela adieraziz eta horrela ez dute hartzen ohiko bidetik eskolaratzen ez den ikaslerik.

- **Behar bereziak dituzten ikasleak**

Bestalde, eta bigarrenik, HKKMren datuen arabera, 2013/2014 ikasturtean, hezkuntza-behar bereziak zituzten 7.536 ikasle zeuden Euskadin. Horietatik 6.632 ohiko ikastetxeetan eskolaratu ziren eta gainerakoak hezkuntza-eskola berezietan.³⁹ Ikastetxearen titulartasunaren arabera, behar bereziak zituen ikasleen % 56,6k ikastetxe publikoetan ikasi zuten eta ehunekoa % 58,1era igotzen da ohiko ikastetxeetan ikasitako hezkuntza-behar bereziko ikasleen kasuan. Ikastetxe pribatuetan ikasitako hezkuntza-behar bereziak dituzten

³⁸ <http://www.ehige.eus/es/hezkuntza-sistema-inklusihoa-lortzeko-proposamenak/>

³⁹ Egindako elkarrizketetatik eta prentsatik jasotako informazioaren arabera, aipagarria da Euskadin behar bereziak dituzten 6 eta 12 urte arteko adin txikikoak integratuta daudela ohiko ikastetxeetan. http://sociedad.elpais.com/sociedad/2014/02/06/actualidad/1391720906_172244.html

ikasleen ehunekoa % 43,4ra eta % 41,9ra igo zen, hurrenez hurren;⁴⁰ beraz, aldea hamar puntu portzentualekoa baino gehiagokoa da (gogoan izan behar da titulartasun publikoko eta hitzartutakoaren artean matrikulatutako ikasle guztien aldea hiru puntu portzentualekoa besterik ez dela).

- **Sexuaren arabera bereizketa**

Azkenik, adierazi behar dela berretsi dela Euskadin badela **sexuaren arabera bereizten dituzten eskola hitzartuak**.⁴¹

BEREIZKETA ONARTZEN DUTEN IRIZPIDEAK

Funts publikoekin mantendutako ikastetxeetako plazetan onartzeko eta esleitzeko lehentasuna emateko ezarritako irizpideek ikasleen zenbait profiletako eskola-bereizketa handiagoa edo txikiagoa izan dadin lagun dezakete. Zentzu horretan, Euskadin, 0-3 arteko hezkuntza-atalean dagoeneko adierazi moduan, martxoaren 4ko 35/2008 Dekretua da, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur-hezkuntzako, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Maila Ertaineko eta Goi-mailako Lanbide-heziketako ikastetxe publikoetan eta pribatu Hitzartuetan ikasleak onartzea arautzen duena.⁴²

Eskola bereizketarekin eta lurralde bateko ikastetxeen arteko eskola-bereizketarekin lotuta, **puntuak esleitzeko irizpide hauek ez datoz bat berdintasun-printzipioarekin:**

- Ikastetxeko kooperatiba-bazkide izatea.
- Ikastetxeko eskumena duen organoak garrantzitsu irizten dion beste edozein zirkunstantzia. Eta irizpideak objektibo izan daitezkeen, zirkunstantzia horiek publiko egin beharko ditu ikastetxeak eskaerak entregatzeko epea hasi baino lehen. Irizpide horrek aukeragarritasuna gehitzen du, eta egindako elkarrizketetan bildutako informazioaren arabera, zenbait ikastetxek berdintasunarekin bat ez datozen zenbait alderdi puntuatu ditzakete, adibidez, gurasoek (ikasle ohiek) ikastetxearekin duten lotura.⁴³

⁴⁰ Unibertsitatekoak ez diren heziketen estatistika. 2013-2014 ikasturtea. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Estatistika eta Ikerketen Idazkaritza Orokorra.

⁴¹ La página web <http://www.educaciondiferenciada.com/enlaces/colegios/> recoge información sobre los colegios que segregan por sexo a nivel nacional. Se ha procedido a visitar las páginas web de los centros para verificar si alguno de ellos anuncia conciertos con la Comunidad con resultado afirmativo.

⁴² <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/03/0801394a.pdf>

⁴³ Gai horrekin lotuta, interesgarriak dira Arartekoaren 2015eko txostenean bildutako kexak http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3896_3.pdf

GOMENDIOAK

- **Eskola-bereizketaren aurka egingo duen hezkuntza-politika bat definitzea**, Euskadiko ikasleak hezkuntzara berdintasunez sar daitezkeela bermatuko duena, bere jatorria edo egoera edozein izanik ere, politika jakin batzuen bidez:
 1. **Eskolaratze-gune bereko ikastetxeetan profil horietako ikasleen gutxieneko eta gehieneko ratioak ezartzea**⁴⁴ eta pilaketa-egoera horiek zaintzen eta zuzentzen lagunduko duten mekanismoak definitzea.
 2. Eskola arteko eskola-bereizketaren kontra egiteko neurriak osatzea **gizarte-komplexutasun handieneko ikastetxeetan ekintza positiboko planekin** bertako gizarte-osaera orekatzeko (baliabide gehiago eta hobeak emanez, magnet programak, talka-planak, irakasle osagarriak, pedagogia-laguntza...).
 3. **Desberdintasuna bultzatzen duten sarbide-irizpideak** ezabatzea, adibidez, gurasoak ikasle ohiak izatea edo anaia-arrebak ikasleak izatea edota ikastetxeak aukera dezakeen “beste baldintza bat”.
 4. **Heziketaren benetako doakotasuna bermatzen duten mekanismoak** ezartzea, jarduera osagarrietarako familiek egin beharreko ekarpenei gehienezko kopurua ezarriz bai ikastetxe publikoetan nola hitzartutakoetan.
 5. Kontratu-programa eredia bultzatzea heterogeneotasun handiko ikasleak eskolaratzen dituzten ikastetxe hitzartutarako eta publikoetarako. Administrazioak halako ikastetxeekin egiten dituen hitzarmenak dira, xedeak emaitzetan eta eskolaratu beharreko biztanleetan zehazteko eta trukean ikastetxeak jasotzen duen finantza-babesa edo bestelako babesa zehazteko.
 6. Sexuaren arabera bereizten duten eskolekin diren hitzarmenak sinatzea edo berritzea debekatzea.
- **Hezkuntza-ikuskaritzaren gaitasunak indartzea** zenbait eskola hitzartuk ikasleak hautatzen ote dituzten kontrolatzeko eta dagozkion neurri zuzentzaileak hartzeko.
- Eskola hitzartu erlijiosoek erlijio katolikoaren irakasgairako alternatibak eskaintzen dituztela ziurtatzea.

⁴⁴ Haurtzaro ahulari buruz Arartekoak egindako txosten berezian ere biltzen da gomendio hori: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_2354_3.pdf, 197. orrialdea eta hurrengoak.



SAVETHECHILDREN.ES



Save the Children